



**2014KO URRIAREN 30EKO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko urriaren hogeita hamarrean, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maialen Aldasoro Aranburu zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2014ko irailaren hogeita bostean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-**

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du abstenitu egingo direla, eta hori batez ere aurrekontuen inguruan lau urteko plan bat eskatzen aritu direlako behin eta berriz eta kasurik egin ez zaielako, eta gehitzen du jarrera hau hartuko dutela bai puntu honetan eta baita hurrengo puntuan ere.



Serna zinegotziak (PSE), kreditu aldaketaren inguruan alkateak ematen dizkion argibideen ondoren, esaten du alde bozkatuko duela.

Gaia eztabaidatu ondoren bozketara jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (Bildu, PSE), aurkako botorik gabe eta 5 abstentzioz (EAJ), honako hau

### ERABAKI DU

**Lehenik.**- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

### KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	27.450,68 €
VII	Kapital transferentziak	811.438,66 €
VIII	Finantza aktiboak	788.391,91 €
<b>GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>		<b>1.627.281,25 €</b>

### FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VII	Kapital transferentziak	14.278,00 €
VIII	Finantza aktiboak	1.613.003,25 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.627.281,25 €</b>

**Bigarren.**- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

### IV.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Ordenantza fiskalen aldaketa proposamenaren azalpena egiten da.

Datorren urterako ez da igoserarik aurreikusten eta beraz tarifak bere horretan geldituko dira orokorrean.



Salbuespen gisa, zabor bilketan edukiontzien erabilera dela, horiek erabiltzen dituztenek ordaindu egin beharko dituzte, proposamenean jasotakoaren arabera; baita ere ludotekako tarifetan tarifa hau neurtzeko moduan aldaketa sartzen da; Kiroldegian, ematetik utzi diren jardueren tarifak bertan behera utzi eta jarduera berrien tarifak finkatzen dira; eta azkenik, hainbat egokitzapen txiki egiten dira ordenantza fiskalen testuetan, ulerze zuzenago baten mesedetan.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du dokumentazioa euskaraz bakarrik jaso duela beste behin ere, eta hau honela abstenitu egingo dela.

EAJk gai honekiko bere jarrera aurreko puntuan zehaztu du, abstentzioa izango da.

Guzti hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (Bildu), aurkako botorik Gabe eta 6 abstentziaz ((EAJ, PSE-EE) honako akordioak hartu ditu:

1. Bere espedientean jasotzen den dokumentazioaren araberrako ordenantza fiskalen aldaketa, behin behineko izaeraz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betiko bihurtzat joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

#### V.- KATALUNIAREN KONTSULTAREN INGURUKO MOZIOA.-

Mozio honen inguruan esan behar azkenean Bildu eta EAJ adostu egin dutela eta biek testu bakarra aurkezten dutela bere onarpenerako.

Mozioak honela dio:

#### "KATALUNIAN KONTSULTA EGITEKO ABIATU DEN PROZESUA

Kataluniako Parlamentuak egindako subiranotasun adierazpenaren gainean Auzitegi Konstituzionalak hartu duen ebazpenari buruz, hurrengo MOZIO hau onar dezan proposatzen diogu Lazkaoko udalbatzari:

1. Errespetatzea eta aitortzea Kataluniako Parlamentuak abiatutako prozesu politiko eta demokratikoa, kataluniar herriaren gehiengoaren borondate demokratikoaren adierazpen gisa. Helburua Kataluniako herritarren erabakitzeko eskubidearen ariketa gauzatea da, bere etorkizun politiko kolektiboa zehazteko.
2. Herriek bere etorkizun politiko erabakitzeko zilegitasun demokratikoa daukate, muga herritarrek demokratikoki adierazi eta erabakitzen dutena izan behar delarik."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du abstenitu egingo dela eta gehitzen du legezko markoa den bezalakoa dela eta hori dela aplikatu dena eta aurkezten den mozioak hauteskunde kutsua daukala eta bera ez datorrela horrekin bat.



Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak aldeko 11 botu (Bildu, EAJ), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez, mozioa onartzea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak zortzi minutu gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



*[Handwritten signature in blue ink]*